

ZEINEN ONURAKO "MAULA"?

Fosilen munduan maulak eta maula-asmoak ugaritxo izan dira. Galdutako katen mailaren ospea bereganatu nahian bat baino gehiago izan da tximino-hezurak erabili dituen sasi-paleontologilaria. Hargatik, askotan izan dira kuarentenan jarriak fosil eta aurkikuntza paleontologiko asko eta asko. Halere, azken bolada honetan zalantzaren itzalak fosil ziurren edo ederrenetako bat ukitu du, *Archaeopteryx* narrazti-hegaztiarena alegia. Sir Fred Hoyle astrofisikari britaniar ezagunak, zeinaren teoria eta ideia bitxi batzuk maiz aztoratu bait dituzte zientzilariak, *Archaeopteryx*-a maula galanta dela esan du.

Fred Hoyle-ren ideia harrigarrien artean bi aipatzekotan, bizia lurrean sortu ez dela izarrarteko espazioan baizik eta gure eguzkiak garai batean biki bat zuela, beranduago lehertu egin zena planetak emanez, aipatuko genituzke.

Bere hezurdura lumen-hatzez estalita egon izan ez balitz, *Archaeopteryx*-a dinosaurio zeulosaurio txikitzat joa izan zatekeen eta ez hegazti primitibotzat. Fosilaren kokapen ebolutiboarentzako luma-hatz horiek funtsezkoak dira Sir Fred Hoyle-k zuzendutako talde batek, L. Spetner robotikan aditua eta R. Watkins eta Ch. Wickramasinghe astrofisikariek osatutakoa, otsailean argitaratutako *British Journal of Photography* delakoaren alean lurnak Karl Haberin XIX. mendeko fosil-biltzaleak egin zituela iradokitzen du Harberlin-ek oraingo hegazti baten lurnak hartuz eta jatorrizko ganga imitatuz lorturiko zimentu berrian presionatuz lortu zitzakeen luma-hatzak. Zimentuzko ohantzea, benetako dinosaurio txikien hezurak zituen gangarekin nahastuko zuen arretatsuki ondoren. Hara luma-dinosauro berria

Hoyle eta taldearen adierazpen bitxi eta fantasiotsu honi erraz lepora dakizkioke hainbat arazo pisuzkoak. Lehena, Harberlin-ek anbotoko damaren aztikeria gutxienez behar izan zuela horren beste detaille zaintzeko eta era egokian taxutzeko maula ehun urte baino gehiagotan guztiz fidagarritzat joa izateko.

Bestalde, *Archaeopteryx*-aren fosil bat baino gehiago ezagutzen da, azkenekoak 1950.eko hamarkadan bildutakoak. Lehena maula balitz, hauek ere izango beharko lukete eta honek urtetako maula-sare ikaragarri zabal eta handia eskatuko luke. Sinisgaitza dena alegia. *Archaeopteryx*-a mende batean zehar aztertu duten paleontologiarientzat fosila guztiz fidagarria da. Halere eta betirako lumen inguruan leudekeen zalantzak uxatzeko azterketa berriak egin beharko dira mikrosonden bidez, materialaren izaera hertsiki ezagutzeko.

Modu honetan hatzen autentizitatea sendotua aterako bada ere, kaltea egina dago, zalantzaren orbana gainean izango bait dute betirako. Zeinen onurako izango da ba

orduan arazo guzti hau?

Archaeopteryx-a herri anglosaxoiarretan eboluzionismoaren aurka borroka garratz eta luzean diharduten kreaziozaleentzat oso lekuko deserosoa da. Eboluzioaren aldeko ho-

rrelako froga sendo bat kolokan jarri ahal izatea izugarritzko garaipena izango litzateke talde filosofiko-ideologiko atzerakoi eta intrantsigente horientzat. Duela mende bateko borroken antzekoen aurrean ez egotea espero dezagun.



Moyle-ren taldean bestalde, eta gainera guztiz adierazgarria da, paleontologiaririk ez dago, robotikariak eta astrofisikariak dira. Zientziaren adar batean muturrean, gailurrean, egoteak, (astrofisikan kasu honetan) ez du esan nahi beste batez (paleontologiaz) iritzia emateko egokia egiten duenik pertsona. Gainera, zergatik ez dute bere aurkikuntza *Nature* eta *Science* bezalako aldizkari

ospetsuetan argitaratu? Batek sinistu nahi izango luke *British Journal of Photography* aukeratu egin dutela teknika fotografikoen azken aurrerakuntzak erabili dituztelako bere iritzia euskarritzeko...

Bakoltzak bereari eutsi eta besteeneri utzi

E. Arrojeria